

**EBANJELIZATZE MISIOA  
OLDAR BERRITZEKO :  
EUSKARAZKO PASTORALTZAREN  
ZERBITZUA**

*Marc Aillet jaun apezpikuari  
Maite Irazoqui eta Peio Ospital-ek  
aurkeztu eskakizuna 2009-11-09an*

**POUR UN NOUVEL ÉLAN  
DANS LA MISSION  
D'ÉVANGÉLISATION :  
UN SERVICE DIOCÉSAIN  
POUR LA PASTORALE BASCOPHONE**

*Requête présentée à Mgr Marc Aillet  
par Maite Irazoqui et Peio Ospital  
le 09-11-2009*

# **EBANJELIZATZE MISIOA OLDAR BERRITZEKO : EUSKARAZKO PASTORALTZAREN ZERBITZUA**

*« Denak Izpiritu Sainduaz bete ziren, eta beste hizkuntza batzutan mintzatzen hasi, bakotxa Izpirituak emaiten zion gisara.*

*Egun heietan judu jainkozale ainitz bazen Jerusalemen, iguzkiaren pean diren nazione guzietarik etorriak. Azantz hura entzutearekin, jende ainitz bildu zen harat, eta harriturik zauden, nork bere hizkuntzan mintzatzen entzuten baitzituen.*

*Harri eta zur, xoraturik, erraiten zuten: « Mintzo diren horiek, ez ote dira denak galilearrak ? Gutarik bakotxak nolaz entzuten ditu, bada, bere ama-hizkuntzan ? Badira gurekin partiar, mediar eta elamdarrak; bai eta Mesopotamian, Judean eta Kapadozian, Ponton eta Asian bizi direnak ere; badira Frigia eta Panfiliakoak, Egipto eta Zirene inguruko Libia aldekoak, bai eta erromatarrak ere; eta denek, judu eta juduberri, kretar eta arabiar, Jainkoaren egintza miragarriez guharen hizkuntzetan mintzatzen entzuten ditugu » (Eg 2, 4-11).*

Hitz horiekin, harriduraz eta xoramenez, kondatzen du San Lukek Jerusalemen Asteen Besta ospakizun egunean iragan gertakaria. Besta hau Sinai mendian eman Legearen oroitzapen besta bihurtu zen, San Lukek hemen kondatzen duen besta bihurtu aitzin, hau da Izpiritu Sainduaren ixurkera.

Jainkoak, jendetza, herri eta presunekin bat egiten du hauen nortasunean, izan dituen gizon, emazte, haur, eri, elbarri, arrantzale, lege-irakasle, aditu, farisau, edota atzerritar edo pagano... Beren bizitzan bat egiten du heiekin, beren hizkuntzan mintzatzen zaizkio.

Ebanjelizatze misio hori (« Jainkoaren egintza miragarriez guharen hizkuntzetan mintzatzen entzuten ditugu »), etengabe arra-berrituz doan misioa da, beti gaurkoa, beti bidean dagona.

Euskal Herrian, ebanjelizatze horrek oihartzun handia izan du, eta fedearen adierazpena indartsua izan da Elizaren sakramenduen praktikan, berdin Jainkoaren seme-alaba izateak erakartzen duen askatasunaren adierazpenean. Soziologiak, filosofiak, instituzioek, elkarteek, bere buruan konfiantza duen haurraren arrastoa daramate, hau da bere nortasunean eta izaeran konfiantza duen haurrarena.

Ainitz dira Jainkoarekilako lokarri hau beren hizkuntzan adierazi duten apez eta laikoak, bai beren bizitzan, berdin idazkietan, ala kantu, poesia, antzerki eta liturgia lanetan.

Gizartearen bilakaerek, mundializazioak, eraginkortasun bilaketak izariak aldarazi dituzte. Erlijionearen zombait alderdi onartezinek presuna batzu urundu dituzte praktika molde neurgarrietarik (hala nola mezan aurkitzen diren presunen kopurua, edo sakramenduak pratikatzen dituztenenak). Azkenean, Jainkoarekilako harremanaren eta “Jainkoaren egintza miragarrien aldarrikapena”ren adierazteko molde berriak asmatu eta sortu behar izan dira.

Kultur egoera berri huni buru egiteko, beharrezkoa da ebanjelizatzearen gune berriak zehaztea, ahalbide egokiak lotuz.

# KULTURAREN PASTORALTZAREN ALDE

*Iturria: Conseil pontifical de la Culture – Documentation catholique n° 2207 du 4 juillet 1999*

## **Fedea eta kultura**

“Eliza, Kristo gizakiaren Berreroslearen Mezulari izanik, pertsonaren eta giza erkidegoen neurri kulturalari kontzientzi berritu batez ohartu da gure garaian”. Kultura da “gizon-emazteek eta herriek naturarekilako eta haurridekilako, beren buruarekilako eta Jainkaorerilako harremana artatzeko erabiltzen duten molde berezia, gizatasun osoko bizitzaz gozatzeko...”

Gizakia, beti, kultura berezi batean oinarriturik dago. Baina, aldi berean, ezin ukatua da ez duela kultura horrek gizakia bere hartan osoki definitzen”. Kulturaz goragoko mail badago, “nolabaiteko haustura bat, fedea eta kulturaren arteko izatezko desberdintasun funtsezkoa markatzen duena”. Fedeak, kultura ororen muinean xertatzerakoan, hau arazten du, joritzen, aberasten, eta “emaiten dio Kristoren neurrigabeko maitasunaren neurrira hedatzeko aukera...”

Elizarentzat, ebanjelizatzea da Berri Ona giza presunari helaraztea, hau bere osotasun konplexuan hartuz, hau da alderdi espirituala eta morala, ekonomikoa eta politikoa, kulturala eta soziala kontutan izanik. Elizak “kulturen ebanjelizatzea” du aipatzen, erran nahi baita mentalitateena, ohidurena, jokaerena. Ebanjelioa, odol bustikorraren gisa, sartzen da kulturetan, hauetan haragitzen da, kristau fede eta bizitzarekin adostezinezko osagai kulturalak gaindituz, eta heien baloreak Kristoren ganik datorren salbamenaren misterioraino altxatuz...

...Elizak, kulturen baitako bekatuaren presentzia salatzen du eta huntaz libratzen ditu. Kontra-baloreak gaitzesten ditu eta haiztzen. Gisa hortan, kulturen kritikatzaila ere bada.

“Zorigaitzekoa da, zalantzarik gabe, garai huntan bizi dugun Ebanjelioaren eta kulturaren arteko haustura... Horra zergatik eginahal guziak egin behar ditugun kultura, edo, hobeki erranda, kulturak nasaiki ebanjelizatzeke. Berri Onaren zirrarak barnetik indar-berritzearen beharra dute” (*Evangelii nuntiandi*, 18-20).

**“Hortarako, ezinbestekoa da Ebanjelioa iragartzea gizakien hizkuntza eta kulturaren”. “Pastoraltza itundu baten bidez bideratu ebanjelizatze inkulturatuak emaiten dio kristau erkidegoari bere berezko kulturaren fedea errezebitzeko, ospatzeko, bizitzeko, adierazteko aukera, Ebanjelioarekin adostasunean eta Eliza unibertsalarekin komunioan” (Redemptoris missio, 54).**

“Kulturaren pastoraltzaren helburu lehena da Ebanjelioaren odol bizikorra kulturetan xertatzea, Errebelazioaren argiak gizakiaren eta gizartearen irudipenak barne-berri eta itxuralda ditzan, hauek bait dituzte kulturak taxutzen, berdin gizonaren eta emaztearen asmatetak, familia eta hezkuntzarenak, eskola eta unibertsitatearenak, askatasun eta egiarenak, lana eta astialdienak, ekonomia eta gizartearenak, zientzia eta edertienak”.

## **Nortasun eta nazio gutiengoak**

“...Nazionalismoak beste nazio eta kultureri buruzko mespretxua edota aihergoa dakarrelarik, abertzaletasuna, alderantziz, bere berezko herriaren eta kulturaren maitasun eta zerbitzu zilegia dela, faborezkoa segur, baina ez baztertzaila, kosmopolitismotik ala nazionalismo kulturaletik berdin urrundua. Kultura oro bere baitako hoberenaren bidez da unibertsalari idekitzen. Aitortu behar da, bestalde, kultura oro bekatuzko ondare zati batez kutsaturik egon daitekela, Ebanjelioaren kontrako hainbat aitzinuste, ohidura eta praktiketan finkaturik dagona. Huntaz garbitzera deitua da, bai eta ere fedearen ekarpenaz aberastera, berdin “Eliz unibertsala bera adierazpen et balore berriez aberastera” (Ikus *Redemptoris missio*, 52 eta *Slavorum apostoli*, 21).

Aldi berean, kulturaren pastoraltza Jesusen Izpirtuaren eta haren maitasunaren emaitzan oinarritzen da, hauek “herri eta kultura guzietan eta baxotxari eskainiak direlarik elgarren artean lotzeko Jainko bakar eta hirukoiaren baitan dagon batasun osoaren idurira” (*Ecclesia in America*, 70).

Baina erraitea ez da nahikoa entzuna izaitzeko. **Iragarpenari, lotu behar zaizkio errezebitua izaitzeko baldintzak.**

## ***Erronka***

Aitor dezagun lehen lehenik, gure problematikari dagokionez, hizkuntz arazoa eduki politiko, eta ez bakarrik kultural, zamatua dagola. Tirabira batean harrapatuak gelditu gitezke:

- alde batetik, euskaltasunaren adierazpen guti edo aski errabiatsua,
- eta bestetik, frantziartasunaren adierazpen guti edo aski zorrotztsua.

Holako jokaeren ondoriozko arriskua hau da: sumindura eta jarreraren murriztapen kulturala. Ez dugu gure burua zepo hortan erortzera utzi behar.

Besterik gabe onartu beharra dago Eliza, berez, gizartearen antzera, anitza dela. Ondorioz, gizarte elebidun bateko kristau-herritaren eginbidea da kristau erkidegoaren batasuna, eta, haratago, gizartearena, ahalbidetzea.

Argi daukagu, bestalde, Elizak ez duela euskararen gerizaren eta aitzinapenaren arduraz azkena, baina eskubide osoa duela bere hizkuntz politika zehazteko ebanjelizatze misioa betetzeko.

## ***Testuingurua***

Gaur egun, Euskal Herrian, fedea eta ebanjelizatzea euskaraz eta frantsesez bizitzen dira: liturgia, Besta Berri, Abesbatzak, JMJ gazteen topaketak, "Hospitalité basco-béarnaise" Zerbitzua, euskarazko meza irrati bidez igandero, beilak (Orria, Ibarla, Arantzazu, Lurdes,...).

Halere, asko dira fedearen besteekilako komuniozko adierazpenetik urrundu direnak, asko dira ere erlijione kulturarik gehiago ez duten euskal militanteak, edota erlijione katolikoa arbuiatzen dutenak.

Aldi berean, ohargarria(k) da(dira)

- ikastetxe gehienek erakaskuntza elebiduna eskaintzen dutela hiru sareetan (erakaskuntza katolikoa, erakaskuntza publikoa, Seaska)
- euskara ikastera lehiatzen den presuna helduen kopurua
- beren langileeri euskara ikasteko aukera eskaintzeko erakunde publikoek egin ahaleginak
- erakunde publikoen ahaleginak sinaletika elehirudunaren alde
- agiri ofizial elebidunak Kontseilu Orokorren ala Hautetsien Kontseiluaren partetik hartzea
- webgune elebidunen hedapena
- euskal kazeta ala irrati elebidunen ahaleginak
- elebitasuna komunikaziorako erabilia ikustea hain hurbil dugun Hego Euskal Herrian.

Mendekosteko Eliza jendeeri hurbiltzen da dauden tokira joanez. Izpiritu Sainduak ateak zabaltzen zituen, Afaltegi gakotzailerik eta lasaigarritik aterarazi zituen dizipuluak eta igorri jendalde eleanizdun, kulturantzidun eta desberdinen artera: "*Badira gurekin partiar, mediar...*".

Eliza gonbidatzailea, bide egiten duen Eliza, ateratzen eta bidera joaiten den Eliza...

Baiona, Leskar eta Oloroneko Elizaren buru dago elizbarruti hirueledunera etortzea onartu duen apezpikua. Tokiko hizkuntza hutsezinezko ahalbidea da hurbilenera komunikatzeko eta jendeekin beren bizitzan eta izatean bat egiteko:

*"Harri eta zur, xoraturik, [jendeek] erraiten zuten: "Mintzo diren horiek, ez ote dira denak galilearrak? Gutarik bakotzak nolaz entzuten ditu, bada, bere ama-hizkuntzan?"*

Topaketak urrats bikoitza eskatzen du: jendeeri buruz joan eta jendeak gonbidatu, norberaren nortasuna gain-gainetik errespetatu. Hau da, bidean dauden jendaldeek Ebanjelizazio unibertsala, eta topaketaren gizabanako Ebanjelizatzea.

Ebanjelizatzearen erronkari buru egiteko, pentsatzen dugu

## **EUSKARAZKO PASTORALTZAREN ZERBITZUA**

sortzeko garaia dela. Hau da gaurko gure eskakizuna.

## ***Proposamen zehatzak***

### ***Zoin litezke Zerbitzu horren eginkizunak ?***

Zuri doakizu, bistan da, hau guzia zehaztea. Dena den, arlo hortako pastoraltzan engaiatuak izanik eta gure esperientziaz baliaturik, eskakizun handiko ardatz nagusi hauek aipa genitzaizkeuegu:

- ✓ elizbarrutiko Zerbitzu ororekilako ardurakidetza, hala nola
  - ☒ katekesia : gidaliburuak eta hainbat dokumentu
  - ☒ liturgia eta sakramendu pastoraltza:
    - dauden iturriak (errito-liburu, kantutegi) internet gune batean bildu, tresna erabilgarria parropietako liturgi taldeen eskuetan jartzeko
    - sorkuntza eta erreperitorioaren berrikuntza sustatu, tokiko eta aldi berean katoliko fedearen adierazpena bultzatu
    - ohidura eta debozio herrikoiak ber-ernaldu
  - ☒ informazio eta komunikazioa: apezpiku ordezkariaren eta euskal prentsaren arteko artekaritza, webgunea
  - ☒ gazteen pastoraltza (adibidez San Andres auzoko unibertsitateko ikasleak)
- ✓ zuhaurek sortu hiru erakundeekilako ardurakidetza: “misioaren behatokia”, “behatoki sozio-politiko”, “bizitza-zaindia”
- ✓ apezpikutegiak argitaratu agiri ofizial guzien idazketa edo itzulpena
- ✓ bi edo berdin hiru hizkuntzetako sinaletika
- ✓ pastoral-egileen euskarazko heziketa eta trebakuntza
- ✓ pastoral-egileekin elkartu, “urrundueri” hurbildu, bokazio berriak sustatu
- ✓ biarnodun elizbarrutiarrekilako harremanak
- ✓ mugaz haindiko euskal elizbarrutiekilako harremanak

### ***Zerbitzuraen konposaketa***

Hementxe gainean aipatu lehentasunezko lan-ardatzak ikusirik, hamar edo dotzena bat presuna behar litezke, gizon ala emazte, laikoak, eta, hauen buru, zuk izendatu eta misionatu denbora osoko bi animatzaile.

\*\* \*\* \*

Parisen, U.N.E.S.C.O. erakundearen egoitzan, 2005ko ekainean iragan mahain-ingurua kari idatzi gutunean, Benedikto XVI. Aita Sainduak artoski lehiatzen zuen Jean-Louis Tauran Kardinala “...kulturararen zinezko politika baten bideratzera, indar ekonomiko eta politikoen arteko neurkerak askotan arriskuan jartzen dituen identitate kulturalen zaintzeaz arduratuz...”

Tokiko Elizeri doakiote beraien pastoral eremuan betebeharrak hau deklinatzea, ahalbide eta tresna egokiak asmatuz, kultur egoera berezian arabera. “Betebeharrak hunek Elizaren ibilbide osoa markatu du bere historia osoan zehar et gaur sentiberatasun eta premiafasun handiz tratatu beharra dago...” (*Redemptoris missio*, 52).

Betekizun neketsua da, tentsioak sor litzazkeenak. Adorea eta kemena galdegiten du, berdin zehaztasun espirituala eta argitasun teologikoa, eta funtsez bihotz-berritzera deitzen gaitu. Baina gaur ezinbestekoa agertzen zaiku. Euskal Herriko Elizaren sinesgarritasuna dago jokoan eta, ondorioz, Eliza osoarena. Huni doakio, orai eta hemen, “kulturen arteko parekotasunean, errespetuan, harreran eta topaketan oinarrituriko jendazko bakearen bilaketan” (*1992ko Sinodoa – 2.kap., 4. art., 40. or.*) bere ekarpena egiteko gaitasuna frogatzea.

# **POUR UN NOUVEL ÉLAN DANS LA MISSION D'ÉVANGÉLISATION : UN SERVICE DIOCÉSAIN POUR LA PASTORALE BASCOPHONE**

*« Tous furent remplis de l'Esprit Saint et ils se mirent à parler en d'autres langues dans lesquelles l'Esprit leur donnait de s'exprimer.*

*Il y avait alors à Jérusalem des Juifs de passage, des croyants venus de toutes les nations qui sont sous le ciel. Et ces gens, quel que soit leur dialecte, les entendirent s'exprimer dans leur propre langue, car le bruit qui s'était produit avait attiré la foule...*

*Ils étaient stupéfaits, étonnés: « Ce sont tous des Galiléens, disaient-ils, et voyez comme ils parlent! Chacun de nous les entend s'exprimer dans sa propre langue. Que nous soyons Parthes ou Mèdes ou Elamites, habitants de Mésopotamie, de Judée ou de Cappadoce, du Pont et de l'Asie, de Phrygie et de Pamphylie, d'Égypte ou de la Lybie en allant sur Cyrène, que nous soyons des Juifs installés à Rome ou des prosélytes, des Crétois ou des Arabes, nous les entendons proclamer dans nos diverses langues les merveilles de Dieu. » (Ac 2,1)*

C'est en ces termes, d'étonnement et d'émerveillement, que St Luc rapporte l'évènement qui a surgi à Jérusalem, un jour de célébration de la fête des Semaines, devenue fête du souvenir de la Loi remise au Sinaï avant de devenir cette fête narrée par St Luc: l'effusion de l'Esprit Saint.

Dieu rejoint les foules, les peuples, les personnes, dans leur identité, d'homme, de femme, d'enfant, de personne malade, handicapée, pêcheur, scribe, docteur, pharisien, et aussi d'étrangers, de païens.... Il les rejoint dans leur vie, Il leur parle dans leur langue.

Cette mission d'évangélisation *« nous les entendons proclamer dans nos diverses langues les merveilles de Dieu »*, est une mission toujours renouvelée, toujours d'actualité, toujours en marche.

Au Pays Basque, cette évangélisation a eu un puissant retentissement, et l'expression de la foi a été forte, à la fois dans la pratique sacramentelle de l'Eglise comme dans l'expression de la liberté que donne le fait d'être enfant de Dieu. La sociologie, la philosophie, les institutions, les associations, portent cette marque de l'enfant qui a confiance en lui car confiant dans son identité et dans son être.

Nombreux ont été les prêtres, les laïcs, qui ont exprimé dans leur vie, dans leurs écrits, dans le chant et la poésie, le théâtre, la liturgie, ce lien avec Dieu, dans leur langue.

Les évolutions de la société, la mondialisation, la recherche de l'efficacité ont modifié les rapports. Des aspects non recevables de la religion ont éloigné des personnes d'une forme de pratique quantifiable (par exemple nombre de personnes à la messe, dans la vie sacramentelle) et il faut inventer, faire surgir, imaginer d'autres formes d'expression de la relation avec Dieu et de la *« proclamation des merveilles de Dieu »*.

Face à cette nouvelle situation culturelle, il convient de définir de nouveaux champs d'évangélisation en y adjoignant des moyens adaptés.

# POUR UNE PASTORALE DE LA CULTURE

*Extraits du Texte du Conseil pontifical de la Culture – Documentation catholique n° 2207 du 4 juillet 1999*

## **Foi et culture**

“Messagère du Christ, Rédempteur de l'homme, l'Église a pris en notre temps une conscience renouvelée de la dimension culturelle de la personne et des communautés humaines”. La culture étant “cette façon particulière dont les hommes et les peuples cultivent leur relation avec la nature et avec leurs frères, avec eux-mêmes et avec Dieu, afin de parvenir à une existence pleinement humaine”.

Mais, si on ne peut “nier que l'homme se situe toujours dans une culture particulière, on ne peut nier non plus que l'homme ne se définit pas tout entier par cette culture”. Il est un plan supra-culturel, une “rupture qui souligne la fondamentale différence de nature entre la foi et la culture”. La foi, rejoignant le cœur de toute culture, purifie celle-ci, la féconde, l'enrichit et lui donne “de se déployer à la mesure sans mesure de l'amour du Christ”.

“Évangéliser, pour l'Église, c'est porter la Bonne Nouvelle à la personne humaine dans sa complexe totalité, spirituelle et morale, économique et politique, culturelle et sociale. L'Église parle d'« évangélisation des cultures », c'est-à-dire des mentalités, des coutumes, des comportements... L'Évangile pénètre vitalemment dans les cultures, s'incarne en elles, dépassant leurs éléments culturels incompatibles avec la foi et la vie chrétiennes, et élevant leurs valeurs jusqu'au mystère du salut qui provient du Christ...”

...L'Église dénonce la présence du péché dans les cultures et les en délivre. Elle stigmatise les contre-valeurs et les exorcise. Elle est donc un élément critique des cultures”.

« La rupture entre Évangile et culture est sans doute le drame de notre époque... Aussi faut-il faire tous les efforts nécessaires en vue d'une généreuse évangélisation de la culture, plus exactement des cultures. Elles doivent être régénérées par l'impact de la Bonne Nouvelle » (*Evangelii nuntiandi*, 18-20).

**“Pour ce faire, il est nécessaire d'annoncer l'Évangile dans le langage et la culture des hommes”.** *“Une évangélisation inculturée grâce à une pastorale concertée permet à la communauté chrétienne de recevoir, célébrer, vivre, traduire sa foi dans sa propre culture, dans la compatibilité avec l'Évangile et la communion avec l'Église universelle”* (*Redemptoris missio*, 54).

“La pastorale de la culture a pour objectif prioritaire d'insérer la sève vitale de l'Évangile dans les cultures pour renouveler de l'intérieur et transformer à la lumière de la Révélation les visions de l'homme et de la société qui modèlent les cultures, les conceptions de l'homme et de la femme, de la famille et de l'éducation, de l'école et de l'université, de la liberté et de la vérité, du travail et des loisirs, de l'économie et de la société, des sciences et des arts”.

## **“Identités et minorités nationales**

...A l'encontre du nationalisme porteur de mépris, voire d'aversion pour d'autres nations et cultures, le patriotisme est l'amour et le service légitimes, privilégiés, mais non exclusifs, de son propre pays et de sa culture, aussi loin du cosmopolitisme que du nationalisme culturel. Chaque culture est ouverte à l'universel par le meilleur d'elle-même. Elle est appelée aussi à se purifier de sa part d'héritage de péché, inscrite dans certains préjugés, coutumes et pratiques opposés à l'Évangile, à s'enrichir de l'apport de la foi et à « enrichir l'Église universelle elle-même d'expressions et de valeurs nouvelles » (cf. *Redemptoris missio*, 52 et *Slavorum apostoli*, 21).

En même temps, la pastorale de la culture s'appuie sur le don de l'Esprit de Jésus et de son amour qui « s'adressent à tous et à chacun des peuples et des cultures pour les unir entre eux à l'exemple de l'unité parfaite qui existe en Dieu un et trine » (*Ecclesia in America*, 70). »

Mais il ne suffit pas de dire pour être entendu. **A l'annonce, il faut conjoindre les conditions de sa réception.**

## ***Enjeu***

Reconnaissons tout d'abord que, dans la problématique qui est la nôtre, le débat linguistique est chargé d'un contenu politique et pas seulement culturel. L'écueil à éviter pour nous est d'aboutir à une crispation et à un appauvrissement culturel des attitudes qui serait la résultante

- d'un côté, d'une expression plus ou moins hargneuse de la basquité,
- et, de l'autre, d'une expression plus ou moins rigide de la francité.

Il nous faut admettre, au départ, que l'Église, comme la société, est plurielle dans sa définition et que l'obligation incombe au chrétien-citoyen d'une société bilingue de rendre possible la cohésion de la communauté chrétienne et, par-delà, sociale.

Il est clair, par ailleurs, que l'Eglise n'a pas la responsabilité dernière de la sauvegarde et de la promotion de la langue basque, mais elle est parfaitement fondée à définir sa propre politique linguistique dans un but d'évangélisation.

## ***Contexte***

Actuellement, au Pays Basque, la foi et l'évangélisation se vivent en basque et en français: liturgie, Fête Dieu, chorales, JMJ, Hospitalité basco-béarnaise, messe en basque à la radio chaque dimanche, pèlerinages (Roncevaux, Ibarre, Arantzazu, Lourdes, ...)

Toutefois, beaucoup de personnes sont éloignées de l'expression de la foi en communion avec les autres et nombreux sont les militants basques qui n'ont plus de culture religieuse et qui ont même un rejet de la religion catholique.

Dans le même temps on constate,

- que la majorité des établissements scolaires offrent un enseignement bilingue dans les trois filières (enseignement catholique, enseignement public et Seaska)
- le grand nombre d'adultes qui suivent un apprentissage de la langue basque
- les efforts des collectivités publiques pour offrir un enseignement de la langue basque à leurs salariés
- les efforts des collectivités publiques pour une signalétique trilingue
- des documents officiels bilingues au Conseil général, au Conseil des Elus
- des sites internet bilingues
- des journaux, des radios basques, bilingues
- une communication bilingue dans le Pays Basque sud, si proche

Une Eglise de Pentecôte va vers les gens là où ils sont. L'Esprit Saint a ouvert les portes, a fait sortir les disciples de leur Cénacle enfermante, rassurant, et les a envoyés au milieu des foules multilingues, multiculturelles, différentes *« que nous soyons Parthes, ou Mèdes....»*

Eglise invitante et Eglise qui sort, qui marche, qui va à la rencontre...

L'Eglise de Bayonne, Lescar et Oloron a à sa tête un évêque qui a accepté de venir dans un diocèse trilingue. Afin de communiquer au plus près et surtout de rejoindre les personnes dans leur vie, dans leur être, la langue vernaculaire est un moyen infaillible :

*« Ce sont tous des Galiléens, et voyez comme ils parlent ! Chacun de nous les entend s'exprimer dans sa langue, disaient les foules.*

Ce double mouvement que nécessite la rencontre : aller vers les gens et inviter les gens, se fait dans le respect de l'identité de chacun, Evangélisation universelle des foules qui se déplacent et Evangélisation individuelle de la rencontre.

Pour répondre à ce défi d'Evangélisation, nous pensons que l'heure est venue de créer un **SERVICE DIOCÉSAIN POUR LA PASTORALE BASCOPHONE.**

C'est notre requête aujourd'hui.

## ***Propositions concrètes***

### ***Quelles seraient les attributions de ce Service ?***

Il vous appartiendra, bien entendu, d'en définir les contours. Toutefois notre engagement et notre expérience dans ce secteur pastoral nous permet de vous soumettre les axes prioritaires suivants faisant l'objet d'une forte demande :

- ☒ assistance et soutien à l'ensemble des Services diocésains, notamment
  - catéchèse: manuels et documents divers
  - pastorale liturgique et sacramentelle:
    - collectage des sources existantes (rituels, chants) en un site internet, outil pratique pour les équipes liturgiques des paroisses
    - favoriser la créativité et le renouvellement du répertoire, susciter une expression indigène propre et en même temps catholique de la foi
    - reviviscence des traditions et des expressions de la piété populaire
  - information et communication: interface entre délégué épiscopal et presse bascophone, site Internet
  - pastorale des jeunes (ex.: étudiants de l'université de Saint-André)
- ✓ liaison avec les trois organismes dont vous avez préconisé la mise en place, à savoir "observatoire de la mission", "observatoire socio-politique" et "académie diocésaine pour la vie"
- ✓ rédaction ou traduction de tous les documents officiels émanant de l'évêché
- ✓ signalétique bilingue, voire trilingue
- ✓ formation et perfectionnement des acteurs pastoraux en langue basque
- ✓ rejoindre les différents acteurs sur leur terrain pastoral, avec le souci de se rapprocher des "éloignés" et de susciter des vocations nouvelles
- ✓ relations avec les diocésains béarnophones
- ✓ relations avec les diocèses basques transfrontaliers

### ***Sa composition***

Eu égard aux chantiers prioritaires énumérés ci-dessus, ce Service pourrait être constitué d'une dizaine ou douzaine de laïcs bénévoles, hommes et femmes, avec, à leur tête, deux animateurs rémunérés à temps plein qu'il vous reviendrait de nommer et de missionner.

\*\* \*\* \*\* \*\*

Dans sa lettre à Son Eminence le Cardinal Jean-Louis Tauran à l'occasion du colloque "Culture, Raison et Liberté" qui se tint à Paris auprès de L' U.N.E.S.C.O. en juin 2005, le Pape Benoît XVI lançait une invitation pressante "...à mettre en oeuvre une véritable politique de la culture, soucieuse de préserver les identités culturelles, souvent menacées par des rapports de forces économiques et politiques..."

Il revient aux Eglises locales de décliner cette exigence sur leur territoire pastoral selon des termes et des moyens appropriés, en fonction des situations culturelles propres. "C'est une exigence qui a marqué tout le parcours de l'Eglise tout au long de son histoire et qui se fait aujourd'hui particulièrement sensible et urgente..." (*Redemptoris missio*, 52).

C'est une entreprise difficile, pouvant créer certaines tensions. Elle nécessite courage et enthousiasme, exige discernement spirituel et lucidité théologique et invite à une authentique conversion de coeur. Mais elle nous apparaît aujourd'hui incontournable. C'est la crédibilité de l'Eglise en Pays Basque qui est en jeu, et, partant, de l'Eglise tout entière. Elle doit faire la preuve, ici et maintenant, de sa capacité à apporter sa contribution "à la recherche d'une paix civile qui soit fondée sur l'égalité, le respect, l'accueil et la rencontre des cultures." (*Synode 1992 – ch. 2, Art. 4 – Or. 40*).